

Lurra denona izan dadin

Lurzaindia SCA Ipar Euskal Herriko laborariek sortutako kolektiboa da. Azken hamarkadetan pairatzen ari diren laborantza lurren espekulazio eta galeraren aurrean, kolektibo honek lur horiek erosi eta merkatutik behin betiko ateratzeko ardura hartu du.

| LIDE HERNANDO |

IPARRALDEAN turismoak gora egin duela-eta, orain arte laborantzarenak izan diren lur asko eta asko azpiegiturak eta etxebizitza berriak eraikitzeke erabili dira. “Laborariz osatutako hainbat kolektibo kezkatuta geunden arazo larri horren aurrean”, dio Dominique Ameztok, Euskal Herriko Laborarien Batasuneko (ELB) kideak. “Kezka horren fruitua da 2013. urte hasieran sortu den Lurzaindia”.

Kolektiboa, aurretik laborantza lurren alde borrokan aritutako beste zenbait talderen batasuna da: ELB, Arrapitz, Euskal Herriko Laborantza Ganbara (EHLG) eta Inter Amap (laborantza herrikoia atxikitzearen aldeko familiez osatua). Lurzaindiaren eginkizuna zera da: kideek ordaindutako kuoten bidez diru-funtsa sortu eta laborantzarako lur oro saltzear dagoen bakoitzean, lur hori erosten lehenengoak izatea. Horrela, lur hori Lurzaindiaren jabetza izatera igarotzen da, merkatutik ateraz, eta ezingo da berriz saldu. Laborariek erabili ahal izango dute, baina partikularrak jabe izan gabe.

“Frantziako Estatuan, lur ororen salerosketan erabaki eskubidea duen erakunde bat dago, SAFER izenekoa. Edozein jabe lurren bat saldu nahi badu, erosleak erakunde horrekin hitz egin behar du lehenbizi, eta ahal badu, prezioaren berrikusketak bat eskatu ere –azaldu du Ameztok–. Guk beti lehenengoak izan nahi dugu hori egiten, lur hori edozein enpresa eraikitzailek baino lehenago eskuratu ahal izateko”.

Lurra zaintzeko, erne egon behar

Lurzaindia hiru zatitan banatua dago: alde batetik, kolektiboa osatzen duten kide guztiak biltzen dituen biltzar nagusia, kuota ordaintzen dutenak alegia; bestetik, lurren salerosketarako dirua kudeatzeaz arduratzen den taldea, ERNE izenekoa; eta azkenik, zaintza eta etika kontseilua. “Kolektiboak 1980ko hamarkadan existitzen zen beste



Lurzaindiako kideak kolektiboaren inaugurazioan, 2013ko urtarrilean.

sozietate bati hartu dio lekukoa. Sozietate horrek noizean behin diru-bilketa kanpainak egiten zituen salgai zeuden etxaldeak eta horien lurak erosteko. Lurzaindia sortu genuenean, sozietate horrek erosita zituen hamasei etxaldeak gure baitan hartu genituen. Ezberdintasuna da SCA formulari esker etengabe dirua biltzen aritu gaitezkeela, hau da, ez diogula inongo erakunderi baimenik eskatu behar dirua biltzeko”.

Kolektiboa nahiko berria denez, oraindik ez dute lur berririk eskuratu, oinordekotzaz jasotako hamasei etxalde horiez gain. Gaurko egunez jada 240.000 bat euro bilduak dituzte, baina salerosketa prozesuan daude oraindik: zenbait lur begiratzen, beste batzuk negoziatzen, SAFER erakundearekin harremanetan... Baina, batez ere, espekulazitatearen aurrean aditzera ematen: “Laborariok arazo larri bat bizi dugula jakinarazi nahi dugu, eta ez gara besoak gurutzaturik geldituko. Gainera, hainbat herriko etxek ere dirua eman digute. Horrek esan nahi du Ipar Euskal Herriko udal batzuk ere gure alde ditugula”, azpimarratu du Dominique Ameztok. ■

